# I ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACION FORAL DE ALAVA I

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

**2.857**

**32/2002 FORU DEKRETUA, maiatzaren 7ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, elkarten partaidetzarako Lurralde Kontseiluaren eraketa onartzen da.**

Azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Euskal Autonomi Erkidegoko Erakundeen eta bere Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanei buruzkoak, 7. artikuluko lehenengo eta bigarren idatz zatietan aditzera ematen duenez, foru erakundeak dira legeak betarazteko ahalmena dutenak, hain zuzen ere Lurralde Historiko bakoitzeko erakunde erkideen ondoko alorretako legeak: gizarte laguntza, komunitate garapena, emakumea, haur eta gazteei buruzko politika eta hirugarren adina. Dena den, Euskal Autonomi Erkidegoko erakunde erkideek ere zuzenean jardun dezakete.

Urriaren 18ko Gizarte Zerbitzuei buruzko 5/1996 Legeak, gizarte zerbitzuak arautu beharko dituzten irizpide orokorren artean, gizartearen partaidetzaren irizpidea ezartzen du, besteak beste, eta botere publikoen esku uzten du hiritarrek gizarte zerbitzuetan demokratikoki parte hartzera bultzatzeearen lana. Lege horrek ere, modu berritzaile batez, irabazi asmorik gabeko erakundeen sustapena azpimarratzen du eta aldi berean gizarte zerbitzuak ematean ekimen pribatuak nola esku hartuko duen arautzen du.

Gainera, gure Lurralde Historikoan gizarte laguntzaren arloan dauden elkarte sare zabalaren garrantzia aipatu beharra dago.

Otsailaren 12ko Elkarteei buruzko 3/1998 Legeak, ordea, elkarteei buruzko egungo araudiak eta administrazio antolaketak duten konplexutasuna ahal den neurrian arintzeko ahalegintzen dira. Izan ere, jendea nahasteko moduko makina bat erregistro dago eta, askotan, administratuak eraikin publiko batetik bestera gogaituta ibiltzera behartuta daude.

Horrela, Elkarteen Partaidetzarako Lurralde Kontseilua eratzeko Dekretu honekin, Administrazioaren eta gizarte zerbitzuen Foru Erregistroan izena emana duten Elkarteen arteko harremanak erraztu eta bultzatu nahi ditu, benetan iradokizunak eta ekimenak elkarrekin trukatzeko, denak besteen esperientzia eta ideiekin aberas daitezen, gizarteko sektore honen onerako eta, orohar, gizartearen onerako ere bai.

Hitz batean, elkarteek gizarte ekintza publikoan parte har dezatela ahalbidetzea da Kontseilu honen azken helburua.

Ondorioz eta Gizarte Ongizaterako Foru Diputatuak hala proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaurko egunez egindako bileran gaiaz eztabaidatu ondoren, hau

XEDATU DUT:

Lehena.- Gizarte gaiez zerikusia duten programekin lotutako elkarteen ekintza koordinatzeko, jarraitzeko eta bultzatzeko eztabaida-leku bat sortzea. Onartu egin den eta Foru Dekretu honekin doan araudi organikoak araupetuko du eta Elkarteen Partaidetzarako Lurralde Kontseilua deituko da.

Bigarrena.- Foru Dekretu honetan berariz aurrez ikusten ez den guztirako, ordezko gisa ezarriko dira azaroaren 26ko Herri Administrazioen Lege Jaurbideari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeak, 4/1999 Legearen arabera idatzita, jasotako arau guztiak, bai eta bateragarri eta egoki direlako ezartzeko moduko diren indarreko xedapenak ere.

Hirugarrena.- Gizarte Ongizaterako foru diputatuari Foru Dekretu hau garatzeko eta egiteratzeko behar diren erabakiak hartzeko ahalmena ematea, bai eta Kontseiluaren funtzionamendua bermatzeko behar diren neurriak hartzeko ere.

Laugarrena.- Foru Dekretu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu ondorengo 20. egunera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko maiatzaren 7a.– Diputatu Nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– Gizarte Ongizaterako Saileko foru diputatua, ENRIQUE AGUIRREZÁBAL OTÁLORA.

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

**2.857**

**DECRETO FORAL 32/2002, del Consejo de Diputados de 7 de mayo, que aprueba la creación del Consejo Territorial de participación asociativa.**

La ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, señala en su artículo 7 apartados primero y segundo, que las competencias de ejecución de la legislación de las instituciones comunes dentro del Territorio Histórico correspondiente, en materia de asistencia social, desarrollo comunitario, condición femenina, política infantil y juvenil, y tercera edad, corresponden a los órganos forales, sin perjuicio de la acción directa de las instituciones comunes del País Vasco.

La ley vasca 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales, establece entre los principios generales por los que se debe de regir el sistema de servicios sociales, el de participación de la sociedad, encomendando a los poderes públicos el fomento de la participación democrática de la ciudadanía en los servicios sociales. Esa misma ley, de una forma innovadora, destaca el fomento de las entidades sin ánimo de lucro, y regula asimismo la intervención de la iniciativa privada en la prestación de los servicios sociales.

Debe reseñarse también la importancia del amplio tejido asociativo existente en nuestro Territorio Histórico en el campo de la asistencia social.

Por su parte, la ley vasca 3/1988, de 12 de febrero, de Asociaciones, descansa en el empeño de mitigar en lo posible la complejidad que caracteriza la normativa actual de asociaciones y la organización administrativa, plagada de un sinfín de registros que confunden a las personas administradas, obligándoles tantas veces a un molesto peregrinaje por los edificios públicos.

Así, este Decreto de creación del Consejo Territorial de Participación Asociativa, pretende facilitar y promover las relaciones entre la Administración y las asociaciones que figuran inscritas en el Registro Foral de servicios sociales a fin de que se produzca un intercambio real de sugerencias e iniciativas, enriqueciéndose todos ellos de la experiencia e ideas del resto, para beneficio de este sector social y de la sociedad en general.

En definitiva, la finalidad última de este Consejo, es favorecer la participación del mundo asociativo en la acción social pública.

En su virtud y a propuesta del Diputado Foral de Bienestar Social, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO:

Primero.- Crear un foro de coordinación, seguimiento e impulso de la acción asociativa ligada a programas de índole social, que se regirá por lo prevenido en el reglamento orgánico que se aprueba y acompaña al presente Decreto Foral, bajo la denominación de Consejo Territorial de Participación Asociativa.

Segundo.- Para todo lo que no prevea expresamente este Decreto Foral son de aplicación supletoria las normas contenidas en la ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en la redacción introducida por la Ley 4/1999, así como las correspondientes disposiciones legales vigentes que resulten de concordante y pertinente aplicación.

Tercero.- Facultar al Diputado de Bienestar Social para que dicte las disposiciones que resulten precisas para el desarrollo y ejecución del presente Decreto Foral así como para arbitrar las medidas necesarias para asegurar el funcionamiento del Consejo.

Cuarto.- Este Decreto Foral entrará en vigor a los 20 días siguientes al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava.

Vitoria-Gasteiz, 7 de mayo de 2002.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– El Diputado Foral titular del Departamento de Bienestar Social, ENRIQUE AGUIRREZÁBAL OTÁLORA.

ELKARTEEN PARTAIDETZARAKO LURRALDE KONTSEILUAREN ERAKETA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Izaera.

1. Elkarteen Partaidetzarako Lurralde Kontseilua eratu egiten da Arabako Lurralde Historikoan egon eta bertan jarduteaz gain Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean dagoen gizarte zerbitzuen foru erregistroan izena emana duten elkarteek parte hartzeko eztabaida-lekutzat, Foru Administrazioaren eta elkarteen arteko harremanak ahalbidetu eta errazteko. Horretarako, iradokizun eta ekimenak elkarrekin trukatzea bultzatuko da, bai eta gizarte ongizate arloko poitika eta ekintzak planifikatu, egiteratu eta jarraitzeko lanetan laguntza ematea ere.

2. Elkarteen Partaidetzarako Lurrlde Kontseilua erakunde kolegiatu bat da, Arabako Foru Aldundiaren ahokularitzarako, eta Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Sailari atxikita dago.

2. artikulua. Xedea eta helburua.

1. Kontseiluaren xedeak honako hauek dira: elkarteak Herri Administrazio desberdinekin lankidetzan aritzea Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen esparruan, elkarteen artean laguntza ematea, bai eta elkarteak gizarte zerbitzuen arloan jarraitzen diren politiketan parte hartzea ere, beste erakunde batzuk erabakiak hartzeko dituzten ahalmenak alde batera utzita.

2. Kontseiluak Arabako Lurralde Historikoan dauden elkarteen lankidetza eta partaidetza instituzio bihurtzea izango du helburu, gizarte zerbitzuen alorreko jarduketari dagokionez lehentasuna dutenen arretarako, gizarteratzeko eta bizi kalitaterako politikak definitzean, ezartzean eta jarraitzean burutzen diren lankidetza eta partaidetza ekintzetarako.

3. artikulua. Eginkizunak.

Elkarteen Partaidetzarako Lurralde Kontseiluaren eginkizunak hauexek izango dira: elkarteek ordezkatzen dituzten taldeen bizi kalitatean eragina duten alderdien gainean etengabe aholkuak ematea eta informazioa eskaintzea, eta bereziki ondorengo hauek:

- Arabako Foru Aldundiari gizarte zerbitzuen programazio orokorrari buruzko proposamenak egitea.

- Elkarte, erakunde, zentro, zerbitzu edo pertsonei zuzendutako dirulaguntza eta bestelako laguntzetarako urtero egiten diren deialdiak arautzen dituzten foru arauen berri izatea eta ematea.

- Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Sailak eta beste erakunde batzuk bere aginpideko arloei buruz egiten dizkion galdera guztien berri ematea eta haien gainean aholkuak ematea.

- Gizarte zerbitzuen funtzionamenduari buruzko proposamenak ezagutzea eta egitea.

- Arlo honetako legeek edo Foru Arauek ematen dizkioten beste eginkizun batzu.

4. artikulua. Egitura eta osakera.

1. Elkarteen Partaidetzarako Lurralde Kontseilua honelaxe egongo da osatuta:

- Lehendakaria: Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Saileko foru diputatuak izango da.

- Lehendakariordea: Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Zuzendaria bera izango da. Lehendakariordea denak Lehendakaritzaren titularra ordezkatuko du, lehendakariarik ez dagoenean, kanpoan dagoenean, gaixorik dagoenean edo Lehendakaritzaren titularrari eragiten dion beste arrazoiren batengatik.

- Vitoria-Gasteizko Udalak hautatutako kide bat, bere ordez jarduteko.

- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen hiru kide.

- Gizarte zerbitzuaren arloan lanean ari diren elkarteen ordezkaritzarako sei kide. Elkarte horiek, Arabako Lurralde historikoan egon eta bertan jarduteaz gain, gizarte zerbitzuen foru erregistroan izena emana izango dute eta Kontseiluan parte hartzeko nahia berariz adieraziko dute.

CREACIÓN DEL CONSEJO TERRITORIAL DE PARTICIPACION ASOCIATIVA

CAPITULO I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Naturaleza.

1. Se crea el Consejo Territorial de Participación Asociativa como foro de participación de las asociaciones que, teniendo domicilio y ámbito de actuación en el Territorio Histórico de Alava, se encuentran inscritas en el registro foral de servicios sociales existente en el Instituto Foral de Bienestar Social, para posibilitar y facilitar las relaciones entre la Administración Foral y las asociaciones, fomentando el intercambio de sugerencias e iniciativas y la colaboración en la planificación, ejecución y seguimiento de las políticas y actuaciones en materia de bienestar social.

2. El Consejo Territorial de Participación Asociativa es un órgano colegiado, de carácter consultivo de la Administración Foral de Álava, y adscrito al Departamento de Bienestar Social de la Diputación Foral de Álava.

Artículo 2. Objeto y finalidad.

1. El objeto del Consejo es la colaboración de las asociaciones con las diferentes Administraciones Públicas en el marco de la Ley Vasca de Servicios Sociales, la colaboración entre las distintas asociaciones entre sí, así como la participación de éstas en las políticas que se adopten en materia de servicios sociales, sin perjuicio de las facultades de decisión que correspondan a otros órganos.

2. El Consejo tendrá como finalidad la institucionalización de la colaboración y participación del movimiento asociativo existente en el Territorio Histórico de Alava en la definición, aplicación y seguimiento de las políticas de atención, inserción social y calidad de vida dirigidas a los sectores de población que son sujetos de actuación preferente en materia de servicios sociales.

Artículo 3. Funciones.

Serán funciones del Consejo Territorial de Participación Asociativa, el asesoramiento e información permanente sobre los aspectos que inciden en la calidad de vida de los colectivos que representan, y en particular las siguientes:

- Formular propuestas a la Diputación Foral de Alava sobre la programación general de los servicios sociales.

- Conocer e informar sobre la normativa foral que regula las convocatorias anuales de subvenciones y ayudas dirigidas a asociaciones, entidades, centros, servicios o personas.

- Informar y asesorar sobre cuantas consultas le sean formuladas por el Departamento de Bienestar Social de la Diputación Foral de Álava así como por otras Instituciones en materias de su competencia.

- Conocer y formular propuestas sobre el funcionamiento de los servicios sociales.

- Cualesquiera otras funciones que le atribuyan las leyes o Normas Forales en esta materia.

Artículo 4. Estructura y Composición.

1. El Consejo Territorial de Participación Asociativa, estará compuesto por:

- Presidencia: Será ostentada por el Diputado o Diputada Foral del Departamento de Bienestar Social de la Diputación Foral de Álava.

- Vicepresidencia: Corresponderá a la persona que ostente la Dirección de Bienestar Social de la Diputación Foral de Álava. La persona que ostente la Vicepresidencia suplirá al titular de la Presidencia en casos de vacante, ausencia, enfermedad o cualquier otra causa que afecte a la persona titular de la Presidencia.

- Una vocalía designada por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, y en representación de éste.

- Tres vocalías en representación del Instituto Foral de Bienestar Social

- Seis vocalías representativas de las asociaciones que trabajen en el ámbito de los servicios sociales, con domicilio y ámbito de actuación en el Territorio Histórico de Alava, que se hallen inscritas en el registro foral de servicios sociales y que manifiesten expresamente su deseo de participar en el Consejo.

2. Idazkari lanetan, hitzpidedun bai baina hautespiderik gabe, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko funtzionarioa izanik Kontseiluaren lehendakaritzak hautatu duen pertsona arituko da.

3. Elkarteen Partaidetzarako Lurralde Kontseiluak, egoki irizten dion guztietan, teknikoki kualifikatuta dauden pertsonak gonbidatuko ditu bere arloko gaietan aholkuak emateko. Pertsona horiek hitzpide izango dute baina ez hautespiderik.

5. artikulua. Izendapena, ordezkapena eta iraupena.

1. Kontseiluko kideak, bere kargua dela eta derrigorrz Kontseilukide direnak izan ezik, Gizarte Ongizaterako Foru Diputatuak izendatuko ditu, aurreko artikuluan aipatutako erakundeek, kasua balitz, hala proposatu ondoren.

2. Kontseilukide titular bakoitzeko ordezko bat hautatu beharko da.

3. Herri Administrazioetakoak ez diren kontseilukideen agintaldia hiru urtekoa izango da.

4. Herri Administrazioetakoak ez diren kontseilukideek honako kasu hauetan galduko duten bere izaera:

a) Agintaldia amaitzen zaienean.

b) Ordezkatzen duten erakundeak desegin edo legezko gaitasuna galtzen dutenean.

c) Izaerari uko egiten diotenean.

d) Agintaldiaren barruan, arrazoi justifikaturik eduki gabe, jarraian hiru osoko bilkuretara edo, jarraian ez badira, bost bilkuretara joaten ez direnean.

e) Ezarri dizkioten eginkizunak betetzea eragozten dion justifikatutako beste edozein arrazoirik dagoenean.

6. artikulua. Antolaketa.

1. Kontseiluaren antolaketa eta funtzionamendua Herri Administrazioetako erakunde kolegiatuetarako azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Lege Jaurbideari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeaaren arabera idatzitakoak, II. izenburuko II. kapituluan adierazitakoari jarraituko diote

2. Elkarteen Partaidetzarako Lurralde Kontseiluak bere antolaketa araudia ezarri ahal izango du, bai eta funtzionamendurako bere arauak ere, arau orokorrei eta Foru dekretu honetan ezarritakoari jarraiki.

7. artikulua. Funtzionamendua.

1. Kontseiluak gutxienez urtean bitan egingo du ohiko bilkura eta bilkura bereziak, berriz, aztertu beharreko gaiak premiazkoak badira egingo dira, lehendakaritzak, berak proposatuta edo Kontseilukideen erdiak hala eskatuta, horretarako deialdia egin ostean.

2. Bilkura deiak Kontseiluko Lehendakaritzak egingo ditu, hamabost laneguneko aurrerapenaz, eta deialdiekin batera eguneko gai zerrenda ere sartu beharko du.

3. Kontseiluaren bilkurak balioa izan dezan, beti kide guztien erdiak egon beharko du gutxienez bertan.

4. Erabakiak bilkuran dauden kideen gehiengoz hartuko dira eta boto berdinketarik balego, Kontseiluaren lehendakariak ebatzi beharko du berdinketa. Erabakien berri ematean arrazoitu egin beharko dira. Gehiengoaren erabakiaren aurka dauden partikularren botoak ere sartu ahal izango dira.

ALDI BATERAKO XEDAPENA

LEHENA. Foru Dekretu hau indarrean jarri ondorengo hilabeteko epean, Kontseiluan kideren bat izan beharko duten erakundeek Kontseilukide titularrak edo ordezkoak izateko proposatu dituzten pertsonen izenak jakinarazi dizkiote Gizarte Ongizaterako Diputatuari.

Gizarte Ongizaterako Diputatuaren Foru Aginduaren bitartez, kontseilukide izango diren pertsonak izendatuko dira.

BIGARRENA. Kontseilua osatzeko lau hilabete egongo dira Foru Dekretu hau indarrean jartzen den egunetik kontatzen hasita.

2. Realizará las funciones de Secretaría, con voz pero sin voto, la persona que, siendo funcionaria del Instituto Foral de Bienestar Social, sea designada por la presidencia del Consejo.

3. El Consejo Territorial de Participación Asociativa invitará siempre que lo considere oportuno a personas con cualificación técnica que realizarán funciones de asesoramiento en asuntos de su competencia, quienes tendrán voz pero no voto.

Artículo 5. Nombramiento, suplencia y duración.

1. El nombramiento de personas como integrantes del Consejo, salvo el de las personas que lo sean por razón de su cargo, será realizado por el Diputado o Diputada de Bienestar Social a propuesta, en su caso, de las entidades citadas en el artículo anterior.

2. Por cada Vocal titular deberá designarse Vocal suplente.

3. La duración del mandato de las vocalías que no representan a las Administraciones Públicas, será de tres años.

4. Las Vocalías que no sean representantes de las Administraciones Publicas perderán su condición de tales:

a) Por expiración del mandato.

b) Por disolución o incapacidad legal de la entidad a la que representen

c) Por renuncia.

d) Por inasistencia injustificada a tres plenos consecutivos o cinco alternos, dentro de la duración del mandato.

e) Por cualquier otra causa justificada que le impida ejercer las funciones que tenga asignadas.

Artículo 6. Organización.

1. La organización y funcionamiento del Consejo se adecuará a lo dispuesto para los órganos colegiados de las Administraciones Públicas en el capítulo II del título II de la ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en su redacción dada por ley 4/1999, de 13 de enero.

2. El Consejo Territorial de Participación Asociativa podrá establecer su propio reglamento de organización así como sus normas de funcionamiento, de acuerdo con la normativa general y con lo establecido en este Decreto Foral.

Artículo 7. Funcionamiento.

1. El Consejo se reunirá en sesión ordinaria al menos dos veces al año, y con carácter extraordinario cuando lo aconseje la urgencia de los asuntos a tratar, previa convocatoria de la presidencia a iniciativa propia o a solicitud de la mitad de vocales del Consejo.

2. Las sesiones serán convocadas por la presidencia del Consejo, con quince días hábiles de antelación, acompañando a dicha convocatoria el orden del día.

3. Para la válida celebración del Consejo será preciso en todo caso, la presencia de, al menos, la mitad de sus miembros.

4. Los acuerdos se adoptarán por mayoría de los miembros presentes, dirimiendo, en su caso, los empates que puedan producirse, quién presida el Consejo, y se informarán de manera motivada. Podrán incluirse votos particulares contrarios a la decisión mayoritaria.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

PRIMERA. En el plazo de un mes contado a partir de la entrada en vigor del presente Decreto Foral, las entidades a las que corresponda alguna de las Vocalías, comunicarán al Diputado o Diputada de Bienestar Social los nombres de las personas propuestas para ocupar en calidad de titular o suplente las diversas vocalías de este Consejo.

Mediante Orden Foral del Diputado o Diputada Foral de Bienestar Social se procederá al nombramiento de las personas que ocuparán las vocalías.

SEGUNDA. El Consejo se constituirá en un plazo máximo de cuatro meses a contar desde la entrada en vigor de este Decreto Foral.